


EUSKAL-ERRIA

REVISTA VASCONGADA

T.º LXVII SAN SEBASTIÁN 15 DE AGOSTO DE 1912 N.º 1062



MIGEL L. LEGAZPI

† 1572-KO AGORRILLA-REN 20-AN



MIGEL L. LEGAZPI

IL ZAN 1572^{-ko} AGORRILLA-REN 20^{-an}

R. I. P.

AMASEIGAREN eunkidaren asieran jayo zan Zumarragan, Legazpi edo Jauregi izendatzen zan eche ederrian, ludi guzian goituba izan bear zuben gizon bulartsu ta trebea.

Gaztea zan oraindik Mejiko-ra juan zanian, eta an gudari bikañenetao bat zan. Geroago alkate egondu zan.

Felipe Bigarrena España-ko errege egin zanian, Ozeania-rako juanaldi bat moldatu zuten Aita Urdaneta-ren aginduz, eta euskaldun jakintsu arren borondatez Legazpi burusaritzat aukeratu zuten.

Irten ziran 1564^{-ko} Azaroa-ren 21^{-an} eta urrengo urteko Ilbeltzaren 9^{-an} ikusi zuten lenengo ugarte ta *Barbados* izena jarri zioten.

Geruago irichi ziran «Lapur ugarte» Marianas-en izena jarri ziote-na, ta Filipinas-etara; ta ugarte guzien uri-buruba Manilas-en ipiñi zuten.

Portugesak ekin zioten bañan aguro zanpatu zituben Legazpi-k, bertakoakin ere izan zituben eztabai batzubek, bañan denak antolatu zituben, eta baztar ayetan esagutu dan agintari azkarrenetakoa izan zan.

Bere izen atsegiña goitutzen da ez bakarrik Euskal-errian, baita ere Filipinas-etako ugarte urrutikoetan, eta baita ere ludi guzian.

EUSKAL-ERRIA

